

Aditz-izenen eta partizipio burutugabeen eraketa azaltzeko prozedura, bizkaierazko testu baten aurrean

Ohar orokorra: hau prozeduraren azalpen OROKORRA, puntuka atalkatua. Testu jakin batek ez badu puntu konkretu bat(zu)e(ta)ko agerpenik, puntu hori(ek) ez d(ir)a iruzkindu beharko. Izan ere, zerrendaketa egin daiteke puntu fisikoen bidez (1/ ..., 2/ ... 3/ ..., etab., agerpenik ez dutenak hutsik utzita), edo gidoika (→ ..., → ..., → ..., → ..., etab., agerpenik ez dutenak saltatuz).

Bestalde, hemen bakarrik bizkaierazko testu baterako azalpena ematen da konplikazio gehien ager ditzakeen euskalkia baita. Gainerako euskalkietako testuetarako, prozedura berbera har daiteke abiapuntu, baina puntu batzuk / askok ez dute garapenik izango.

1/ Alomorfoen banaketa batueraz (eta orokorrean erdialdeko euskalkietan) bezala diren kasuak (hots, *-te-* izango dugu *-S-i-z* eta *-n-z* bukatu-ko aditzetan, *-tze-* gainerakoetan): (... testuko kasuak zerrendatu...).

2/ *-te-* alomorfoa (batueraz baino) testuinguru gehiagotan agertzen den kasuak:

2.1/ Testuinguru fonetiko gehiagotan, hots *-V-z* (adib. *atera-te-*), *-n-i-z* (adib. *imin-te-*), *-l-i-z* (adib. *ibil-te-*) eta *-rr-i-z* (adib. *ezar-te-*) bukatu-ko aditzekin: (... testuko kasuak zerrendatu...).

2.2/ *-te* aditz-oinaren gainean ez baizik eta partizipio burutuaren gainean ezartzen den kasuak (adib. *saldu-te-*, *sartu-te-*, *bildu-te-*, etab.): (... testuko kasuak zerrendatu...).

3/ *-(k)eta* alomorfoa (normalean, partizipio buruta *-(d)u* edo *-idu* atzizkiekin egiten duten aditzak; adib. *kanteta-* (< *kanta-eta-*), *agin-keta-*, etab.): (... testuko kasuak zerrendatu...).

Jean Etxepare (5)

BERIBILEZ

XI

BERTZE BIETAN AGERTZEN

Gain-behera luze bezain ezti batek bageramatza xuxen bertze herri bildu-bildu, pollit batetarar. Embil aita seme pilotariak hemen direla bizi nik erran orduko, ihardesten daudet bertzeek: *Orio!* Bi oren lehenago iragan bagine, plazaratu zitzaizkikedan ene lagunak, ikusteko «joko garbiaren» aldezkari biak han othe zirenez. Aithor dut jarraiki nintzaikeela gogotik, beso zalu, xuxen, eta indar-neurri onekoa baitute bai aitak bai semeak.

Badugu bertzalde zer ikus, gure bideari goazilarik. Ohartzen gira Bilbaoko olhentzat adailu bereziak egiten dituen fabrikari. Etzen segur hoin handi, gerlako lehen urthean. Aitzin-paretatik hitz larri batzuek iragartzen daukute, han moldatu adailuari sua ezin ditakela aihet. Ez balakite orok, guk bezala, ez dela adailurik su-gar biziskoarentzat guti edo aski minbera ez denik!

Behinik behin, olhetako labeak berotuaren ariaz barnetik erreak eta janak izaiten ohi dira hiru ilhabeteren buruko. Azken gerlaren ondarrerat, lasterrago ere ez othe ziren kaskailtzen? Berri-berritarik egin batzu aldean badituzte beharrik ordaintzat, andeatu direneko. Horrela, lana bethi aitzina badoa, Bilbaon eta... Orion.

1. Itzul itzazu batuerara azpimarraturiko zortzi formak, azter itzazu morfologikoki, sintaktikoki, eta komenta itzazu haien gorabehera formal-semantikoak.

2. Egin itzazu testuari buruzko honako ariketa orokorrak:

2.a. Azter ezazu testuan agertzen den izen-deklinabidea, bereizgarriak diren formei arreta berezia eman.

2.b. Azter itzazu testuan agertzen diren aditz-izenak eta partizipio burutugabeak (alomorfoak, haien banaketa, eta banaketa honen kokapen dialektala), eta Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork saileko laguntzaileak, eta azal itzazu haien gorabehera dialektalak.

ARIKETAK

1.

-bageramatza:

1. Bagaramatza
2. **ba** baieztapen aurrizkia **geramatza** eraman tr., Ind. Orainaldia, Hark-gu
3. Perpaus nagusiko aditza
4. Lapurdin, Lehenaldiko bokalismoarekiko nahasmena izaten da.

-iragan bagine:

1. Igaro izan bagina
2. **iragan** ad. oina **bagine** Baldintzazkoa; Baldintza, Orainaldia, Gu
3. Menpeko perpauseko aditza; baldintzazkoa
4. -Igaro aditza Iparralden *iragan* forman agertzen da
-*Bagineko* azken hotsean RUI erregela aplikatzen da: bokal itxi baten ondoren, a > e

-goazilarik:

1. Goazelarik
2. **goazi** joan tr.; Ind., Orainaldia, Gu **-larik**
3. Menpeko perpauseko aditza; modal-gerundioazkoa
4. Aditz iragangaitz batzuetan, NOReko pluralgilea *-zi* egiten da.

-ezin ditakela aiher:

1. Ezin daitekela aihertu
2. **ezin** Ad. modala **ditake** AHAL.; Orainaldia, Hura **-ela aiher** Ad. oina
3. Menpeko perpauseko aditza; konpletibozkoa
4. -Ekialdeko hizkera batzuetan, a i> i
-*Aiher* gehien bat autore lapurtarretan agertzen da
-Erdi ekialdarrean, ahalera erabiltzean, aditza partizipio gabe erabiltzen da

-adailurik:

1. Adreilurik
2. **adailu** iz. **-rik** partitiboa
3. Izen-sintagma; partitibozkoa

4. Nafar-lapurterazko hitza

-izaiten ohi dira:

1. Izaten ohi dira
2. **izai** A.O. **ten** partizipio burutugabea **ohi** partikula **dira** egin tr.; Ind., Orainaldia, Haiek
3. Perpaus nagusiko aditza
4. Erdi ekialdarrean, (-n)-z amaitzen diren aditzetan -ite(n) partizipio burutugabea erabiltzen dira.

-ordaintzat:

1. Ordaintzat
2. **ordain** iz. **tzat** prolatibo-marka
3. Osagarri predikatiboa
4. -

-badoa:

1. Badoa
2. **ba** baieztapen aurrizkia **doa** joan tr.; Ind., Orainaldia, Hura
3. Perpaus nagusiko aditza
4. -

2. A

	SINGULARRA	PLURALA	MUGAGABEA
ABSOLUTIBOA	Oneko-a, lan-a	Pilotari-ak, lagun-ak	Oren-Ø, zalu-Ø, minbera- Ø
ERGATIBOA	Ait-ak, seme-ak	Bertze-ek	Bate-k

DATIBOA	Bide-ari, fabrik-ari		
GENITIBOA	Garbi-aren, gerl-aren		ilhabetere-aren
LEKU-GENITIBOA	Gerla-ko, buru-ko	olh-etako	
INSTRUMENTALA	ari-az		
SOZIATIBOA			
MOTIBATIBOA			
DESTINATIBOA	bizisko-arentzat	olh-entzat	
PROLATIBOA	-	-	ordain-tzat
PARTITIBOA	-	-	Adailu-rik, beharr-ik
INESIBOA	urthe-an		
ABLATIBOA/ PROSEKUTIBOA	Gogo-tik, pareta-tik		berri-tarik
ADLATIBOA	ondarre-rat		bat-etarat
MUGA-ADLATIBO A			
HURBILTZE-ADLA TIBOA			
DESTINATIBOA (bizigabeetan)			
ABLATIBOA (bizidunetan)			

Berritarik; ablatibo mugagabea, erdi ekialdarrekoa erabiltzen du.

Ondarrerat eta batetarat; nafar-lapurterako forman egiten du.

B

ADITZ-IZENAK	PARTIZIPIO BURUTUGABEA	NOR-NORK LAGUNTZAILEAK	NOR-NORI-NORK LAGUNTZAILEAK
Ikusteko	<u>Ihardesten</u> dautet <u>Ohartzen</u> gira <u>egiten</u> dituen <u>iragartzen</u> daukute <u>izaiten</u> ohi dira ez ... ziren <u>kaskailtzen</u>	aithor <u>dut</u> egiten <u>dituen</u>	ihardesten <u>dautet</u> iragartzen <u>daukute</u>

Aditz izenak eta partizipio burutugabeak Batuan ez bezala, hiru alomorforekin egiten ditu: (-S+i)-z bukatzen direnean -te(n) darabil: *ikusteko, ihardesten,...* (-n)-z amaitzen direnetan -ite(n) egiten du: *izaiten...* Beste guztietan -tze(n) egiten du.

NOR-NORI-NORKeko laguntzaileetan: erroan /i/ → /au/ egiten da, datiboa 1. edo 2. pertsonakoak direnean, eta Noriko markak bortiztu egiten dira; /-gu-/ → /-ku-/. Norkeko pluralgile bezala -te erabiltzen da.

Dautet laguntzailearen kasuan, Norkeko pluralgilea Noriko marka eta erroaren artean kokatu da, beraz, ez da bortizterik gertatzen.

Mendiburu (4)

JESUS BIHOTZAREN DEBOZIOA. §. III. JESUSEN BIHOTZAREN DEBOZIOKO ONDASUNETARA DARAMAN BIDEA GARBITZEKO EGIN BEHAR DIRAN BI GAUZA LENBIZIKOA. BERE BURUA HILDURATZEA EDO MORTIFIKATZEA

4. Lenbiziko egin bear dezun gauza, etsai gaixtoa garaitzeko, da zere burua hilduratzea edo mortifikatzea. Ez du etsairik garaituko, ez du izain Zeruko ondasunik, hildura onetan sartu nai ez duenak. *Nerekin edo nere ondoren etorri nai duenak* —Jesus onak hitz egiten dizu— *ez dagiela gogo gaixtoak eskatzen dion gauzarik: ar beza bere Gurutzea ta jarrai bekit edo betor nere ondotik: Gurutzea soñean, ta bere burua begitan arturik ez darraikidana ezin dateke nere ikasle edo eskolakoa. Ez nago ni onela ez dabilzanentzat* [(Math. c.10.&16. Luc. c.14. v. 27)]. Santuak orobat hitz egiten dizue; bada neurritu oi dute onaren birtutea daraman hilduraz edo bere buruari ematen dion atsekabearekin. Santua zela norbait esaten ziotenean Loiolako Aita San Ignaziori, ala izain da, eranzun oi zuen, bere buruaren etsai andia bada. Ez da birtuterik jaiotzen nekearekin maneatzan ez den lurrean; ta jaio ta larritu dena ere laster igartzen da, nekeak berak ekartzen ezpadio Zerutik behar duen ura ta janaria.

5. Hildura modu bi dira Zeruko bidean birtuteari laguntzen diotenak: kanpokoia ta barrengoia; edo gorputzarena bata ta bestea bihotzarena. Galtzen bada bata, besteak ez du luzaro irauten. Birtuteak eskatzen duen gorputzaren hildura edo mortifikazioa ar diteke baruz, silizioz, diziplinaz, loa galduz ta beste asko bidez; ta, artzen denean Konfesore onak eman dituen neurriak autsi gabe, garaitzen du alferkeria, izutzen ditu etsaiak ta irabazten ditu askotan beharko dituen graziaren indarrak. Baña austen baditu neurriak, edo egiten badu behar ez bezala, birtuteari lagundu beharrean, kentzen diotza bere oñak.

1. Itzul itzazu batuerara azpimarraturiko zortzi formak, azter itzazu morfologikoki, sintaktikoki, eta komenta itzazu haien gorabehera formal-semantikoak.

2. Egin itzazu testuari buruzko honako ariketa orokorrak:

2.a. Azter ezazu testuan agertzen den izen-deklinabidea, bereizgarriak diren formei arreta berezia eman.

2.b. Azter itzazu testuan agertzen diren aditz-izenak eta partizipio burutugabeak (marka ezazu morfema berarekin eratzen direla, baina zehaztu itzazu alomorfo bakoitzaren alomorfoa), eta Nor-Nori-Nork saileko aditz laguntzaileak.

ARIKETAK

1.

-egin bear dezun:

1. Egin behar duzun
2. **egin** ad. oina **bear** ad. modala **dezu** Ind., OA, Zuk-Hura **+n**
3. Menpeko perpauseko aditza; erlatibozkoa
4. -NOR-NORKeko orainaldiko 2. pertsonan erdialdeko forma erabiltzen du, ez ordean beste pertsonetan.

-Ortografia zaharra: *bear* /h/ gabe idatzita; hegoaldeko idazkera zaharra.

-ez du izain:

1. Ez du izanen
2. **ez** adond. **du** Ind., OA, Hark-Hura **izain**
3. Perpaus nagusiko aditza
4. Izanen ekialdeko formatik datorren forma da izain. Goi-nafarreran gertatzen den forma bat da: Izanen > izaen > izain

-Zeruko ondasunik:

1. Zeruko ondasunik
2. **Zeru** iz. **-ko** leku-gen. **ondasun** iz. **-ik** partitiboa
3. Osagarri zuzena
4. -

-dagiela:

1. Dezala egin
2. **dagi** egin tr.; Subj., OA, Hark-Hura **-ela**
3. Aginterazkoa
4. Egin aditzaren forma trinko zaharra mantentzen du.

-eranzun oi zuen:

1. Erantzun ohi zuen
2. **erantzun** ad. oina **oi** partikula **zuen** Ind., LA, Hark-Hura
3. Perp. nagusiko aditza
4. -Testu zaharretan, (-n)-z eta (-l)-z bukatutako hitzetan, afikatuak txistukaritu egiten ziren.

-Ortografia zaharra: *oi* /h/ gabe idatzita; hegoaldeko idazkera zaharra.

-nekeak berak:

1. Nekeak berak
2. **neke** iz. **-ak** Erg. Sing. **ber** 3. graduko izenordaina, sing. **-ak** Erg. Sing.
3. Subjektua
4. Ipse forma erabiltzen du. Testu zaharretan Idem forma (*neke berak*) erabiltzen zen beti, baina Mendiburuk forma moderno erabili zuen.

-ar diteke:

1. Har daiteke
2. **ar** ad. oina **diteke** Ahal., OA, Hura
3. Perp. nagusiko aditza
4. -Ahalerazko formetan, aditz oina bakarrik agertzen da, partizipio gabe.
-Ekialdeko euskalkietan, (C-ai-) > (C-i-) bilakaera gertatu zen.
-Ortografia zaharra: *ar* /h/ gabe idatzita; hegoaldeko idazkera zaharra.

-birtuteari:

1. Bertuteari
2. **birtute** iz. **-ari** Dat. sing.
3. Zehar-osagarria
4. *Birtute* hegoaldeko forma da.

2. A

	SINGULARRA	PLURALA	MUGAGABEA
ABSOLUTIBOA	Gauz-a, gurutze-a, birtute-a	Neurri-ak, etsai-ak, indarr-ak, oñ-ak	Bi- Ø, asko-Ø
ERGATIBOA	Duen-ak, on-ak, santu-ak		
DATIBOA	birtute-ari		
GENITIBOA	gorputz-aren, bihotz-aren(a), on-aren		
LEKU-GENITIBOA	eskola-ko(a), Loiola-ko		
INSTRUMENTALA	hildur-az		Baru-z, silizio-z
SOZIATIBOA	Atsegabe-arekin, neke-arekin		
MOTIBATIBOA			
DESTINATIBOA		dabilzan-entzat	
PROLATIBOA	-	-	
PARTITIBOA	-	-	ondasun-ik, gauza-rik, birtute-rik
INESIBOA	Soñ-ean, bide-an		Begi-tan, asko-tan
ABLATIBOA/ PROSEKUTIBOA	Ondo-tik, Zeru-tik		
ADLATIBOA			

MUGA-ADLATIBO A			
HURBILTZE-ADLA TIBOA			
DESTINATIBOA (bizigabeetan)			
ABLATIBOA (bizidunetan)			

Soziatibo mugagabeen (-rekin) forma ekialdar eta erdi-ekialdarra erabiltzen du.

B

ADITZ-IZENAK	PARTIZIPIO BURUTUGABEA	NOR-NORI-NORK LAGUNTZAILEAK
Garaitzeko hilduratzea mortifikatzea	<u>Egiten</u> dizu <u>eskatzen</u> dion <u>ematen</u> dion <u>esaten</u> ziotenean ez da ... <u>jaiotzen</u> <u>maneaten</u> ez den <u>igartzen</u> da <u>ekartzen</u> ezpadio <u>laguntzen</u> diotenak <u>galtzen</u> bada	Egiten <u>dizu</u> eskatzen <u>dion</u> egiten <u>dizue</u> ematen <u>dion</u> esaten <u>ziotenean</u> ekartzen <u>ezpadio</u> laguntzen <u>diotenak</u> kentzen <u>diotza</u>

	ez du ... <u>irauten</u> <u>eskatzen</u> duen <u>artzen</u> denean <u>garaitzen</u> du <u>izutzen</u> ditu <u>irabazten</u> ditu <u>austen</u> baditu <u>egiten</u> badu <u>kentzen</u> diotza	
--	--	--

Euskara batuan bezala, alomorfo bi ditu: *-te-* eta *-tze-*. Erabilera, batuaren modura, honakoa da: *-te-* alomorfoa (-S+i)-z; *irabazten*, *austen*, eta (-n)-z; *egiten*, *irauten*, amaitzen diren aditzetan erabiltzen da. Beste guztiak, *-tze-* alomorfoarekin.

NOR-NORI-NORK saileko aditz laguntzaileak batuaz bezalakoak dira guztiak, bat izan ezik: *diotza*. NOR-NORI-NORKeko absolutiboko ohiko pluralgilea *-zki-* izaten da, erroa eta datibo-marka bitartean (*dizkio*); baina kasu berezi honetan, amaieran jartzen zaio *-tza* pluralgile marka. Gainera, datiboko hirugarren pertsonaren marka aurreratu egiten da, absolutiboaren pluralgile markaren aurretik ageri dela. Gainera, ergatiboko pluralgileari dagokionez, edialdeko *-te-* erabiltzen du.

Grafia eta hotsak: Fonografia¹

- 1) Azentuak eta bestelako zeinu diakritikoak
- 2) Nola irudikatzen ditu ondoko fonemak, esanahi fonikorik badute?

2.1. [y] bokala

[y] hotsaren grafia Iparraldeko euskalkietan (zuberera eta alboko mintzoak)

<ou> --> [u] vs. <i> --> [y]

2.2. Belareak [k; g]

[k] hotsaren grafia

- silaba hasieran: <e>; <qu>; -q
- silaba bukaeran: <-c>; <-q>

[g] hotsaren grafia:

- aurreko bokalekin (e, i): <gu> edo <g>
- erdiko eta atzeko bokalekin (a, o, u): <gu> edo <g>

2.3. [b] espainkaria

 eta <v> grafien erabilera (cf. hemen, § 3)

2.4. *-j- hotsaren idazkera: <j, g, i, x, y>

<jaquin>; <xaquin>; <yaquin>; <iaquin>; <gaquin>

2.5. Txistukariak

1) Idazleak frikariak eta afrikatuak idatziz bereizten ditu?

Hegoaldean ez; Iparraldean bai [orokortuz]

Hegoaldeko sistema:

¹ Euskal hiztegietan ez da izen hau agertzen, baina ikusita zein definizio ematen diren inguruko hizkuntzetan "La técnica de grabar y reproducir sonidos" (DRAG) eta "Procédé mécanique d'enregistrement ou de reproduction des sons, fondé sur la transmission de vibrations par l'intermédiaire d'une pointe se déplaçant sur un disque en rotation" (Larousse), nik uste testuinguru honetara heda daitekeen hitza izan daitekeela, grafia ere soinua grabatzeko prozedura izan daitekeelako.

	Apikari	Hobikari	Sabaikari
Frikari	<s, ss>	<z, ç, ç>	<x, g, j>
Afrikatu	<s, ss>; <sq, sc>	<z, ç, ç>; <sq, sc>	<ch>

Iparraldeko sistema

	Apikari	Hobikari	Sabaikari
Frikari	<s, ss>	<z, ç, ç>	<x, g, j, ch>
Afrikatu	<ts, tss, x>	<tz, te, te>	<ch>

-Testuinguru hauen arabera grafia bat ala beste erabil dezaket

Hitz hasieran

Bokal artean

Kodan (hitz zein silabarena)

2) Txistukarien neutralitatea? [mendebaldeko euskalkietan bereziki]

- Herzkari aurretik: *guzti* ala *gusti*? *eset* ala *ezet*?
- hitz hasieran: *sartu* ala *zartu*?
- bokal artean: *o(f)zo* ala *o(f)so*?
- hitz amaeran: *leguez* ala *legues*?

3) Ozen ondoko txistukariak

Eguno euskarari: s, z --> ts, tz / n, l, r, _ : *unibertsitate* (lat. *universitatem*); *entsalada* (gazt. *ensalada*) *helzaitz* (< hel zaitez),

Baina euskara zaharrean?: *enzun*, *arzain* (< *art + zain);

1.2.7. Hasperenak

a) <h> grafia

- kontu grafikoa? (Hegoaldeko hizkeretan)
- grafia etimologikoa? *honore*, *hume*...
- hitz hasierak markatzeko: *hizan*, *hurte*, *hoso*...
- hiaioak markatzeko bide: *ardahoa*, *armahac*...
- hasperenketaren adierazle? (Iparraldeko euskalkietan)

Testuinguruak:

Hitz hasieran: *handi, hanix...*

Bokal artean: *zabar, ohorexu...*

Ozen ostean: *arhitz, olha, çinhex...*

b) Heskari hasperendunak

[p^h]: <pp>, <ph>, <pph>

[t^h]: <tt>, <th>

[k^h]: <cc>, <ck>, <kt>, <kkh>

1.2.8. kontsonante palataleak: [ʎ] [ɲ]

Grafiak: <ll>, <ñ>, <gn>, <gl>, <nh>, <lh>?

a) Asimilaziozko palatalizazioak [automatikoak]:

- Testuinguruak:

- n, l --> ñ, ll / V_ : *baina, ba(i)ña, bagna; maila, ma(i)lla*
- n, l --> ñ, ll / i_ : *biña, bina; dotrina, dotriña; ibili, ibilli; hilabete, hillabete*
- mailleguak: *bañera, bainera; botella, botella*

- Mendebaldeko asimilaziozko palatalizazio zaharrak: *gox, etexa, bakotxa...*²

b) Palatalizazio adierazgarriak:

"Esmahiak kudeatzen duenean zuzenean hots ordezkatzea, esaten da hots simbolismoa gertatzen dela [...] hitzunik, oinarritzko neska edo zeren gogoan, nexka edo xexen esaten duenean, oinarritzko formari EZAUGARRI fonetiko bat aldatua, hitz berri bat eratorzen du." (ofederra 2004: 126)

3) Grafia etimologikoak

1) Mailleguetan iatorritzko hizkuntzaren grafia mantentzeko joera:

lat. <philosophia>, <Christus>, <redemptore> --> eusk. *philosophiaren*,

christiñau, erredemptoretic

lat. <venerable> --> eusk. *venerablera*

2) Euskal hitzetan:

- egilearen uestezko etimologia:

eusk. <hume>, <vicitça>, <videa>: cf. *homo, hombre, homme; vita, vida,*

*vie eta via, vía, voie*³

- hitz eratorrietan, oinarrian dagoen hitzaren grafia:

<hitzcuñça> --> [hiskunsa] (cf. <hitz>)

4) Bokalkapaketak

4.1 Bokalkapaketak

a) Hitz mailako bokalkapaketak

- Hitz batzuen aldaera zaharrak bokalkapaketak bikoiztu zuten: *jaan* 'jan', *oostu* 'ostu',

sartzeen 'sartzen', *domeeka* (<*dome(n)iika)

- Kontsonanteren bat galitzeagatik sorturikoak (Hegoaldean berziki): *zaar*

'zahar', *suur* 'sudur', *txaal* 'txahal', *mii* 'mih' ...

b) Elkartuen ondoriozko bokalkapaketak

ataartean 'ate-artean'; *oilaar* 'oilo-ar', *eskaari* 'eske-art' ...

c) Deklinabidea

- *Y* + e deklinabidean: *erxe+etan* (*erxeetan* ala *erxetan?*),

adizkietan: *deutsee* + e 'diete' (*deutsee, deutsee*)

d) Asimilazioen ondoriozko bokalkapaketak (ik. beheago)

- *gauza-etan* (*gauzaetan, gauzeetan* ala *gauzetan?*)

4.2 Artikuluaren bokalkapaketak

a + *a* = *alabea, alab(e)ak, alabeari...*

[*mendebal zabal bateko testuetan aztertu beharrekoa*]

a + *a* (artikulua) > *arreeba; arreeba*;⁴

a + *an* (lokatiboa): *arreebaan*

a + *ak* (abs./erg. pluralak): *arreebaak* (abs./erg. pl) / *arreebaek* (sing.)

-*e* + *a* > -*ea*, -*ia*, -*eia*, -*é*, -*i*

-*i* + *a* > -*ia*, -*ija*, -*iya*

-*o* + *a*: -*oa*, -*ua*,

³ Adibideok latina, gaztelania eta frantsesa hurrenkeran emanik daude.

⁴ Zerauzeran *a* + *a* > -*ara* egiten zen, eia honen adibide bat Etxeparenean aurkituko dugu: *eguziara vachinagui vrricari nanguidiçu* (IX, 32) 'egia bazeneki, erukitsu egin nakikezu'.

² Modernoagoa dirudi egungo hizkeretan aurkitzen den [z, s --> x / i_] asimilazioa: *gixon, bixi...*

-u / a: -ua, -uba, -uia, -ia.

4.3 Gainontzeko bokal topaketak (ik. bokal bikoitzak)

- Bokal asimilazioak-disimilazioak:

- ama + etan: amaetan, ametaan, *amietan?
- gauza + etan (gauzaetan, gauzeetan ala gauzetan?)
- deutse + e (deutsie, deutsee)

eragoz, basatze XVI

4.1 Bokalkoitzak

aornica

5) Bokalkoitzak

- VnV > VhV > VV > VV (Hegoaldean)
- VnV > VhV > VhV (Iparraldeko mendebaldean)
- VnV > VhV (Zuberetan eta inguruko hizkeretan)

Bizkaiko testu zaharretan

<diocu>, <seya>, <iguy> [bizkaiera zaharra]

diñozu, seiña, iguin [bizkaiera modernoa]

6) Kii erregela

a > e aldaketa bokal altu baten ondoren, tartean kontsonante bat egon ala ez (cf. FHV 63).

Testuinguruak

Artikulu (-V_ eta -VC_ testuinguruak bananduta): negue, argie, -E-UBK

Bestelako deklinabide markak: negure, argire, biten, zugez, didineri, eztozguna...

Erroa: buler, inder, izen izan, (gauze)...

Eratorpen atzizkiak (eta aditz atzizkiak): deutzudez, dogule, dogiela 'dagiala', eginde

Hitz biren artean (talde foniko berean direnean: bat, (e)ta, adizki enklitikoak...): egun bet, ekusi deu, jaun de jabe...

7) n eta l osteko leherkariak

Zuberetan eta Erroankarri gainontzeko EH guztian dagoen [p, t, k > b, d, g / n, l] erregela ez da betetzen. Honela, hizkera hauen ezaugarri liriteke honkei, helñi, horrentziako, iganzie... formak.

5 Hauetan aztertuko ditugu artikulu gabeko kasuak, aldatzen den bokala kontsonante baten ostean dagoenean: -ra atzizkian, adibidez.

Morfologia

I Izen morfologia

1.1. Artikulu sistema zaharra

Artikulu erakuslek eratorzen bada, (-a (artikulu)) < ha erakuslea [hura forma berriagoa], euskara zaharrean, hirugarren graduko artikuluarekin batera, lehenengo eta bigarren graduko artikuluak bazuden

eragoz, burunda XII

er morfo:

datibo plu -ak sei

genetibo: -gat

genetibo: -een

ablato: -ti / -rean / -ean

instru -a / -ot / -tas

motibatio: -gauti

ergatibo plu -ak Ni betacariez confessetan nachaco langoico gustis poderosoari (KJ14)

dat morfo: guciac bilduric seme gazteran ioan cedin herri vrun batetara (Lp, Lk 15: 13)

instru -a / -ot / -tas sendo cenduan odolori biurtu jacu gacjioa (TAV 93)

instru -a / -ot / -tas hoben vste dayenori ahicetian traydore (Etxep. II, 13)

instru -a / -ot / -tas Ezen plu, eban eg

instru -a / -ot / -tas E-aornica 3.p. iragava

instru -a / -ot / -tas Oro har, salbuespenak salbuespen, honela itzul ditzakegu halako egiturak:

instru -a / -ot / -tas etxean konpondu behar da 'hay que arreglar la casa [mia]'

instru -a / -ot / -tas datibo: 3. p. sg. -kjo etxeori saldu behar duzu 'hay que arreglar la casa [nuya]'

instru -a / -ot / -tas dat morfo:

instru -a / -ot / -tas -a / -o

instru -a / -ot / -tas -a / -o

instru -a / -ot / -tas -a / -o

instru -a / -ot / -tas -a / -o

instru -a / -ot / -tas -a / -o

instru -a / -ot / -tas -a / -o

instru -a / -ot / -tas -a / -o

instru -a / -ot / -tas -a / -o

instru -a / -ot / -tas -a / -o

instru -a / -ot / -tas -a / -o

instru -a / -ot / -tas -a / -o

instru -a / -ot / -tas -a / -o

instru -a / -ot / -tas -a / -o

instru -a / -ot / -tas -a / -o

instru -a / -ot / -tas -a / -o

instru -a / -ot / -tas -a / -o

instru -a / -ot / -tas -a / -o

instru -a / -ot / -tas -a / -o

1.3. Izenordeak

a) izenorde indartuen egitura

Arrunta	Indartua	
	Hego.	Ipar.
Ni	Neu(t) Neroni ne(u)rau	Nihaur ne(u)ror
Hi	Heu(t) geurok	Hihaur herori
Gu	Geu(t) Zerori	Guhaur geurok
Zu	Zeu(t) Zuek	Zuhaur zihaur Zerori

ik. ene vs. nire
 erdatidatzaileak:
 Izen morfo:
 ablatiboak: -tik, Naf.: -et
 moti.: -gaitik
 inenordean indartuak
 Ad. morfo:
 -datibo pluri.: -or
 -izan du
 NNen
 erdatidatzaileak:
 Izen morfo: Bizkaitan: *Spuz
 -datibo pluri.: -ei
 -destinatibo -dako
 -inablatiboak: -gaitik
 -berrean
 Ad. morfo:
 -etorkizuna: -en
 -edun erroa: -u-
 Sintaxia:
 -bau(t) erlatibizazio
 partitiboa
 Nafarroa garaia:
 Beld. -sinkepak
 I.N. -instrumentala -s
 Hegoaldeko nafarroa:
 I.N.: -caure
 -Inor → for
 A.N.: -datibotzein orain/datibo
 gaitse. orain

b) Izenorde zehaztugabeen formak:

inor, nihor, nehor, ior... (cf. OEH, s.v. inor)

1.4. Deklinabide kasuak

1) Ergatiboa

Erg. pluralaren forma

-ak (mendebal zabal batean) / -ek (ekialdean)

2) Datiboa

mugg.: -i/-eri

sing.: -ari/-ai

pl.: -ai [Mendebal zabal] -ei [errialdea], -er [ekialde zabal], (-ari, -eri) Ad. N.

3) Genitiboa

a) atzizkien formak:

- gen. arkaikoa: -re (Ortze semea, 13XX)

- sing.: -aren, -aen, -(e)en,

- mgg.: -ren, -en

(mendebaldeko testuetan)

b) Adiera:

- Iparaldeko euskalkietan genitiboak destinatiboaren (-entza) esanahia har dezake:

4) Adlatiboa

-ra (hurr-e-ra)

-rat (hurr-e-rat)

-arat (hurr-i-arat)

-ala (hurr-i-alat) → Ekialde hertsiago batean (Zuberera)

} Ekialde zabal batean (Nafarroako ekialdetik hara)

a) Bizidunetan, zeren gainean oinarritzen dira? (cf. hemen 13. azpitatala)

abs. -agana / -akana ~ -ak gana;

-arengan / -engana

Viva Jesus Bizkaita XVI-XVII

I.N.:

-ergatikoa sg. -ek

-geutibo -en / gabe

-sozialibo -gait

-ablatibo -etarik / -ti

-pluri. -ren

-moti bati: -gaiti, -gaitik

-datibo pluri. -ai / -ei

7) Adlatibo bukatuzkoa (-rains)

-rains, -ragino, -ra arte

8) Ablatibo-prosekutiboa

a) Formak:

mendebaldeko hizkeretan:

Ablatiboa = -rean(ik), -(r)ik, -ti(k)

prosekutiboa = -ti(k)

ekialdeko hizkeretan:

etxetik vs. etxetarik, anaganik

b) adiera: Mendebaldeko testu zaharretan bi adiera ezberdin

mendirian/mendirik ekarri dau egurra 'menditik ekarri du egurra'

menditi ibili da 'mendian zehar ibili da'

⁶ Behinola mendebaldean ere ezaguna zen: cf. *Arma escudiac on dira dardos, pareric estabe canporacos* (Errodrigo Zaratekoaren eresia)

9) Komitatiboa (soziatiboa)

a) Zein forma erabiltzen dute

-gaz (kasu honetan zein da plurala: -akaz ala -akin?)
-kin, -ki, -kien; -kila.

b) Zeren gainean oinarritzen da, absolutiboa edo genitiboa?

-gaz / -akaz (< *ak gaz); -akin / -akin-ekin (< *ak kin- *ek kin)
-arekin / -ekin (< *(ar)je kin)

Balapeyre Zoharros XVII

10) Instrumentala

- nitzaz vs. nitaz
- lagunez vs. lagunetaz

i.n.

- soraitziboa

-ka

- luesitza

- Adlatiboa -ra

- Instrumentala: - (f) zoz

- Datiboa plu: -en

- Genitiboa: -en

- Plura adlatiboa: -guoa

- Ablatiboa (f) itz (lata karrak
t:it) armurak

11) Motibatiboa (-gatik)

a) Zein forma erabiltzen dute

-gaiti / -gati

-gaitik / -gatik (cf. Ablatibo-prosekutiboa)

b) Zeren gainean oinarritzen da, absolutiboa edo genitiboa? A.N.

-agati(k) / akaiti(k)-ak gati(k) (< *ak gaiti);

-arengaiti(k) / -engaiti

- Datiboa 3p plu: -e- / -te

- it- pluralgia

- Ahalera

- te / (r) on etorazuna

- Datiboa hitatan plu: -a- / -ta-

- Erosua

- Iratza

- Aditza -ra -te-

- erhai - ero = hi

- ita pluralgia jain aditza

- ga- atizkia: lagunagana (mendebal zabal batean)

- bait(h)- partikula: lagunaren baitan (ekialde zabalean).

- itz (lata karrak) N.Nari: -zo- erro

- itz (lata karrak)

- itz (lata karrak)

- i-u > ü-ü

- an zoi palatalizatzaioa

- ke + e > ie

- e / i > ü

- e + e → y epentesia

1.5. n-dun modu adberbioak

nola / nola(a)n, ala / ala(a)n (mendebaldean)

1.6. -arigo / -(e)ko izenlagunetan

urrungo / urruneko (mendebaldean)

2. Aditz morfologia

2.1. Adizki jokatuabeak

a) Partizipioen formak

- o [mailegu berrietan] -adu/-idu (mendebaldean); -atu/-itu; -a/-i (ekialdean)
- o egondu/izandu; egotu/izatu pleonasmok (Naf. ~ Lap.)
- o partizipio arkaikoak: bidari, harritu 'hartu' (Etxep.), hotzitu (bizk.)
- o *e-ren irakupena partizipioetan = ecusi, efini

b) Aditz-izenaren formak (Urgell 2006)

-Testuinguruak

- a) Menpeko esaldietan
- b) Aditz perfrasietan (partizipio ez-buruttua)

-Aztertu beharrekoa

Euskal Herri guztian: -te/ -ze atzizkien banaketa partizipio motaka (-i, -tu, -n, -o ...)

Mendebaldean: bereziki forma ugariasuna izan du: -te, -ze, -ete, -ite, -tzaite, -tute...
-eman edo jato motako partizipioen aditz-izen forma: emaiten, izaiten, jaiten, igaiten...

c) Geroaldiko partizipioa (-en vs. -go)

partizipio motaren arabera

egingo, ekarriko, helduko (mendebal zabal batean)

-eginen, ekarriren, helduko

-eginen, ekarriren, helduko

-eginen, ekarriren, helduren (Zuberetan)

d) Partizipioaren bidezko predikatua: -rik / -la / a /

eterako lana bukaturik dago

eterako lana bukatuta dago

eterako lana bukatu dago

eterako lana bukatua dago

e) Partizipioa eta aditzoinaren arteko oposizioa

Testuetan ikus daitekeenez, mendebaldean (Bizk. Arab.) ekialdera joan den neutralizea izan

da:

-ekarri dezaket vs. ekar dezaket [ahalaria]

-ekarri dadin vs. ekar dadin [subjuntiboa]

- *ekarri egizu* vs. *ekar egizu* [agintera]

2.2. Adizki jokatuak

2.2.1. Indikatiboak

- a) izan-en adizkiak
- *zara, zera, zara, zira...* [bokalismoak]
 - *garade, zarade, dirade...* [plural pleonasmok]
 - *zaree, zaré, zaréte* [2. pertsona plurala 'zuek']
 - *zarean, diréan* vs. *zaran, diran* [mendebaldeko hizkeretan]

b) izan-en NOR-NORI adizkiak (3. pertsonan bereziki)

jako/jaku (mendebaldea) // *zaito/zaigu* (erdialdea) // *zauko/zauku* (ekialdea)

c) *edun-en adizkiak:

- *dot, deut, det, dit...* [bokalismoa]
- pluralen: *ditut, ditudaz, dodaz, iut, ditut* [asimilasioak, aferesiak]

**eradun* adizkiek bigatze fonetiko asko patratu dituzte:
deraut > *draut* (cf. *drauzat* Lç.; *draugu* Ber.)
 > *daraut* (cf. *daraurizaut* Etxep.)
 > *darot*
 > *derait* > *de(r)it* (*derienec* Bp)

d) NOR-NORI-NORK laguntzailleak:

- erroak: **erusi* 'deusot' / *-i- 'diot' / **eradun* 'deraukot'

- Erabilera ezberdinak: Hizkeren arabera erro bat baino gehiago erabil zitezkeen:

- a) **eradun* 'derautzut] baina *-i- [diot] Nori 3. pertsona denean
- b) **eradun* Nor pl. [derauzkot 'dizkiot'] eta *-i- sing. [diot]

e) Pluralgileak

- NOR-NORK erregimenean
- de pluralgilea: *claude* vs. *dabe* 'dute' [mendebaldean]
diagoz / diagode / daude, dabilde 'dabilzate'?
- [erdialdean]: *zar(e)e* vs. *zarete; due* vs. *dute; duzue* vs. *duzute*
- i- eta -z pluralgileen ordezkakzea mendebaldean
ditut --> *ditudaz* --> *dodaz*
ditu --> *dituz* --> *dauz?*

- NOR-NORI-NORK erregimenean
- NOR pluralleko atzizkia:

deusotz, dizkiozu, ditiozu, derauzko,

2.2.2. Ez-Indikatiboak

a) *edin adizkiak:

- Forma asimilatuak: *dadin / dedin / ditdin*
- Pluralgile pleonastikoak:
 - subjuntiboetan: *gaitean / gaitezan*
 - *zaitzate* (hiru pl. marka: -z eta -te birritan)

b) Laguntzaille iragankorrak: NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK erregimenean

- egin / *ezan / *erazan / *iron*
- Erabilera testuinguru ezberdinetan:
 a) **ezan* NN eta *egin* NNN erregimenean (gipuzkera): *dezakezu, degiokezu*
 b) **ezan* NN eta **erazan* NNN erregimenean (hego-Nafarroan): *dezakezu, drazakezu*
 c) **ezan* NN eta NNN erregimenean (Iparraldean): *dezakezu, diezaitokezu*
 d) **ezan* eta **iron* elkarbultzatzen (Iparraldean)

c) Ahaleraren atzizkiak: -te eta -ke

- te atzizkia vs. -teke pleonasmoa iragangaitzetan: *daite / daiteke*
- ke atzizkia iragankorretan: *egin* eta **iron* ez zuten -ke behar testu zaharretan

d) Helburuzko subjuntiboak: -tzat atzizkia

- Euskara zaharrean subjuntiboa helburuzko menpeko perpaus batean agertzen bazen, -tzat atzizkia zuen indargarri bezala:
imini euslen domekearen eguna guk egun au gauz-onak egiten emon daiguntzat
ezagut detzaguntzat Jainkoak egin izan darozkigun emaitzak

e) Aginterak

- b-dun aginterak: *beite, begi*
- *ekar(r)i eikezu* (**ekarriko ezazu)

f) Geroaldi zaharrak

- *egin dakezu* (egingo duzu)
- *egin dagian* (egingo du)

2.3 Aditz trinkoak

- egon-en adizkiak: dago, da(g)ode, dagoz
- *nin adizkia: emanen supletiboa: indazu oguia 'ogia eman tezadazu'
- (g)idi- adizkiak: egin-en supletiboa ahaleran
- *edin aditz indartsu bezala: 'bihurtu' cidin gizon 'gizon bihurtu zen'
- Geroaldiak trinkoetan: dagoke...

2.4 Aktanteen gehiketak

a) Nori gehitzea trinkoetan

Hizkirik gehitzen da? dagozu / jagotzu [< d-i-ago-ts-zu] / diagozu / dagobizu

b) Alokutiboak

- Hiketa

Lagunarteko hizketan, hit 2. pertsona singularra erabiltzen denean, aditzean pertsona hori agertu behar da, esaldian inolako agerpenik egin ez arren:

- nik egin dunt/k [znk egin duzu] baina
- bera etorri dunt/k [bera etorri da]
- nik hau ekarri ditut [nik hau ekarri dut]

- Zuketa:

Beha-Nafareran eta Zubereran, eta Goi Nafarroko Erronkaribarren eta Zaraitzun, hiketan ikusten dugun erabilpen bera egiten dute zu (eta xu) pertsonekin:

- zuk egin duzu (daxu) [zuk egin duzu] baina
- bera etorri duzu (daxu) [bera etorri da]
- nik hau ekarri dituz? etxerako [nik hau ekarri dut etxerako]

1.5 Aditz uzkurduak = ekarrikotzet, ongoire...

Han-hemen aurkitzen ditugu honelako ezaugarri fonetikoak, baina bat sistematikotzat jo beharko bagenu, lapurtera klasikoko *ditut > tut uzkurdua izan daiteke, sing. pl. bereziketa dut vs. tut forma hartzen duen heinean.

1.6 a / e oposaketa = dau / deutset

7 Bizarren pertsonak esaldian parte hartuko bala, *edun erroa beharrezan *eradun, grabilko zuten, eta kasu honetan, zuberetan partatu duten adizkia tokikoan biltzeko, honela adizkiaren esaldia: ni zut haur ekarri detut etxerako (ordutik, det ditut) = beraz zut haur ekarri detut etxerako (ordutik, det ditut) = beraz zut haur ekarri detut etxerako.

a) Ezezko perpausak

Azterketa linguistikorako eskema (1.1) Euskal testuak II (2017) Euskal testuak II (2017) Adizki bipersonalak eta hirupersonalak (NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK) bereizietako sistema mendebaldean: dagizu 'zuk egiten duzu' vs. degizu 'hank zuri egiten duzu' (cf. hemen 1.4)

2.7 zu adizkiak a diera pluralen

zu izenordea hasieran plurala zen [hi sing. vs. zu pl.], eta testu zaharretan oraindik aurkitzen dugu aditzetako -zu adizkiak plural balio horrekin (mendebaldean gehien iraua zuten): zuek egin duzu; zuek adindun zara

Sintaxia

1. Komuntadura ezak

a) Objektu zuzenarekiko komuntadura eza (L.akarra 1996: 188 e. hh.):

EAEko erdialdean (Arabako laniada, Deba ibarra, Goterri) objektu zuzenarekiko komuntadura eza aurkitzen da testu zaharretan:

- abraxaizen deusi errai guziak (Barrutia)
- bercaizen jaco becahuac confesau baño lenago (antzuolako dotrina)
- bercattico dirazula neure pecatuac (Zegamako dotrina)
- or vildu dizu munduco perfeccioac (Gamiz)

b) Datiboarekiko komuntadura eza (cf. Fernandez 2011):

Iparraldeko hizkeren ezaugarria da esaldiko sintagma datiboak ez izatea aditzen islarik, honelako esaldiak aurki daitezke:

- baitezpada gorrieri emango dudala ene botza
- zueri (zuei) zer-nahi gisetarat, jazarriko dena niri jazarriko da

2. Mugagabeen erabilera

Euskara zaharretan gaur egunean baino ohikoago zen mugagabeak erabiltzea:

- "Norberaren" gauza denean: erregeren abokatu (Etxep); eben da ezkontu (Etxahun Iruri)
- Atributuetan: etxea gorri da, on da

3. Hitz ordenak

Egungo euskararen ordena konkretu bat jarraitu behar duten segmentuek beste ordena bat izan dezakete testu zaharretan:

ichi ez eiguzu tentaziñoan yausten⁸

b) Erlatibozko menpeko perpausak

Christiñeu [Iangoicoen gracion dagoçan]ac 'Jainkoaren grazian dauden kristauak'

Becatari [Iangoicoagana biortu ditesan]ay 'Jainkoarengana biurtu ditzeen bekatariak'

c) genitiboak

Errodrigo Çaratecoa, misterio altaracoa

tentacicioe gueure arerioeneticaric; erreligie pecatuenic

d) ezin hizkiaren kokapena

'Lehenengo garai batean perifrasi osoaren aurretik kokatu bide zen [ezin + ad. nag. + ad. lag.] eta ondoren aditz nagusi eta laguntzailearen artean kokatzen hasi zen [ad. nag. + ezin + ad. lag.], eta geroago [ezin + ad. lag. + ad. nag.] hurrenkeran.'⁸ hots:

1. garaia: ezin *ekar dezaket*
2. garaia: *ekar ezin dezaket*
3. garaia: *ekar ezin dezaket*

4. Menpeko perpausen atzikiak

a) menpeko-en eta -ela partikulen bokalismoa

dam (mendebal zabal batean) vs. *den* (ekialde zabal batean)

dirala (mendebal-erdialde zabal batean) vs. *dirala* (ekialde zabal batean)

[mendebaldean]: *dirala / dirala*

doean / doari; daroala / daroala

b) Izen osteko erlatiboak: zein partikularekin egindako erlatiboak

Mikel zeinak kotxea ekarri duen [Euskal Herri osoko ezaugarria]

Mikel, zeinak kotxea ekarri baitu [Ekialde zabal batean, aurrekoarekin batera]

Mikel, zeinak kotxea ekarri du [han hemenka]

cf. El auxiliar de la subordinada lleva *bait-* en los textos orientales (y en Lasa) y *-(e)n* en los occidentales y en Zubiri (82). Hay ambas formas en el catecismo alto-navarro de Añibarro y en el catecismo de Ulzama (22 *-(e)n*, 22 *bait*; tiene además *ejs.* sin marca alguna, v. *ijfira*). Lardizabal y Beovide lo emplean siempre sin marca alguna de subordinación. En Añibarro, *CañB*, Iturriaga, Arana (*Sigr* 76 sin marca, *Sigr* 36 con *-n*), Legaz y Zubiri (82 con *-n*, 79 sin marca) hay *ejs.* con y sin marca de subordinación. (OEH, s.v. *zein III*)

⁸ Egitura honen ezaugarri garrantzitsuenak *ekarri ez du* garaiko hiz. ordenak esaldi nagusietako adizkietan aurkitzen ditugu. Egilgo-etsikaren arabera agerian kanpuz daitezke *ekarri*, izan ere, mendeko perpausetan oraindik ere ordena zahar hau posible baita *ekarri ez duen kotxea* esaldian ikus daitezkeen bezala.

c) Aditz-izenen bidezko menderagailuetan adlatibo/ inesibo txandakitzea

[Mendebaldeko euskalkietan]: mugimenduzko aditzekin inesiboa: *jaten etorri da, bazkalzen noa*

[Ekialdeko euskalkietan]: *utzi eta lagundu* bezalako aditzek adlatiboa: *utzi du hori egitera; lagundu gaitu hori egitera*

d) -(e)no, -ino, -ño partikula mendeko perpaus bukatuzkoetan

-no atzikiak denbora-tartean azken muga adierazten du eta trinkoei eta [aditzoina + **edin*, **ezan*], [aditzoina + **iro*] (ekialdean) eta [partizipioa + *egin*] (mendebaldean) perifrasietakoa laguntzaileei gehitzen zaie⁸

Behinola orokorra izan zen atziki hau (Lazk lekukotzen du mendebaldean: *daikeano* 1183r, *zitezkeano* 1152r, *eyano* 1153r... eta Mendiburuk erdialean XVIII. mendean: *deño, dirañ, dueño, dueño*... Iparraldeko euskalkietan lekukotzen da gehien, testu zaharrenetatik.

oriez gorderik an egoin da Jesus denbora orretan guzian, ta oriek trauten dueño (Mb.)

Eta erraiten draue Iesusek: Ezteietako jendeek barurik ahal daidite eskondua hekin deno? *eskondua berekin duteno barurik ezin daidite.* (Lç, Mk. 2: 19)

5. Galdera marketako -a

Ekialde zabal batean (Iparralde osoa, eta Nafarroa Garaiko Erronkarbarren eta

Zaraitzun), galderetan aditza *-a* baten bidez markatzen da:

Pizita haur norena dea?

ekharri duzuta buatura zure semearen?

Nahi dia jin itxasoaren ikustra?

6. Nominalizazioen osagarri zuzenak: Abs. edo gen. (TOGEN)

Egun Iparraldeko ezaugarria den *Laguna* dizu zure *laguntzeko* egitura, garai batean Euskal herri osoan aurki zitezkeen:

Bergararroc asi dira trujioe baten asmatzen
alabançaen beti esaten

7. Linschmann-Aresti legea

Izenorde genitiboetan, izenorde indartua (*neure, zeure*) erabiliko da erreferentea aditz nagusiarekin komunizadura egiten badu, bestela izenorde arrunta erabiliko da:

geure gogoak hanbat seguraniza emaiten denaku... (Ax. 42)

ene guztiau zeure egin egizu... (Laz. A17: 27)

Ene borondate berriak etzuen indarrik asko borondate zahararen garaitzeko. (Ax. 30)

ene negarrau enzun egizu... (Laz. A16: 3)

8. Menpeko esaldietako /-aurrizkiak

Zehar estiloan (*esan zuen lagunduko zuela*) testu zaharrek egun erabiltzen dugun lehenaldiko z- erabili beharrean 3. pertsonako adizkietan, ahalegiatzko /- atzizkia erabiltzen dute:

gueiyeguin eusen arrainei urten leguyela ensuten vere sermoea eta dochrinea.
ceren latin publica munda guetatar berce lengoagiac bezala (Etxep.)

9. Aoristoak

a) aoristo trinkoak: XVI. mendeko testuetan, lehenaldiko adizki trinkoek ez zuten gaur egun duten aspektu burutugabearen adiera (*hots, zeitorren 'etortzen zen'*); aitzitik, bazuten baita aspektu burutua ere adierazten zuten:

gure mandoa urac engarren eta urac aroa 'nuestro macho el agua te traxo y el agua te lleva'
ate bati zegoen eskalea, goseak hil zezan 'ate bati egon zen eskalea, goseak hil zuen'

b) aoristo perifrastikoak: Euskara arkaikoan, egun lehenaldiko subjuntibo bezala ezagutzen ditugun perifrasiak (*egin zezan, joan zedin*) beste adiera bat zuten, indikatiboazko lehenaldiko esanahia zuten:

jaqui çidin nagua, erra çizan uria 'Levantose el perezoso, quemó la villa'

Cerutica iayri cedin harçaz amaturic 'zerutik jaitsi zen hartaz enamaturik' (Etxep.)

10. Subjuntibo zaharrak: *dagoen/ dagoela gelditi!*

Testu zaharretan, eta oraindik gaur egun ere, indikatiboazko adizkiek *-(e)n* edota *-(e)la* partikulen bidez adiera subjuntiboa izan dezakete:

Deabruen dela [= izan dadila deabruentzat]

lagunok, dugun edan [= edan dezagun]

11. Habitual zaharra: *amaitu doa*

Testu zaharretan [*partizipio + joan*] (iragangaitz) eta [*partizipio + eroan/eraman*] (iragankorrek) perifrasiak aurki ditzakegu gaur egungo perifrasi ez burutuaren adiera berarekin:

hao ysian eztoa sartu eulita 'ez da sartzen'

mundu honek anhez gende enganatu darama 'enganatzen du'

lau isen doas cause principelac 'lau izaten dira kausa printzipalak'

esan daroen legues 'esaten duten legez'

12. Bestelako partikulak:

Bestelako partikulak hauen azterketa egin ahal izateko, egokiena da *OEH* hiztegiak baliatzea; bertan partikularen forma ezberdinei, tradizioari (erabilera ezberdinak) eta kokapen geografikoari buruzko datu mordoak aurkituko du ikasleak.

- *baizen/ baize / baizik / baino...*

- *ceren, cerren...*

Lexikoa

OEH da erremintarik onena testu baten lexikoak aipatzeko duena bilatzeko, bertan hizaren tradizioari (erabilera ezberdinak) eta kokapen geografikoari buruzko datu mordoak aurkituko du ikasleak.

a) Aldaera zaharrak

etxe 'etxe'; *(h)eben* '(h)emen';

b) Aldaera geografikoak

izen / uzen, arerio / etsai / izterbegi; ixartu / esnatu / irazarri

c) Aditzen erregimenak

Aditzek behar dituzten elementuak (datiboak, ergatiboak...) —eta ondorioz erabiltzen dituzten laguntzaileak—, aldatzen dira lekuz lekuz eta aldatuz joan dira euskararen historian zehar:

eskatu natzazu / eskatu nauzu / didazu

deitu nau / deitu dit

Euskal Testuak 2020/12/18

Lana : urtarrilaren 22ko. (Ariketarako laguntza dokumentua, egelan)

Kronologiarekin loturiko ezaugarri orokorrak :

1-Geroaldiko partizipioak : -go VS -en

2- *ezin* partikularen kokapena (Mendiburu) :

Adibidez : « *ezin laguna ikusi dut* » (perifrasiaren aurretik/kanpo) > « *laguna ikusi ezin dut* » (perifrasiaren barnean) >, « *ezin dut laguna ikusi* » (gaur egun, laguntzailearen ondotik) eta ezezkoaren kokapen bitxia « *laguna ikusi ez dut* » > « *ez dut laguna ikusi* »

3- Erlatibozko perpausen kokapena

« *Ikusi dudana laguna* » [erl]+izen+det. Baina testu zaharretan hau : «*Lagun ikusi dudana* » : iz + [erl] + det.

4- -KE- ahalerazkoa iragangaitzetan : daiteke/dezake (EB) > testu zaharretan 'daite' = daiteke.

1) Daite (iragangaitzak) vs. Dezake (iragankorrak)

2) Daiteke vs. Dezake (-KE- horrek lekua hartu du)

edo

1) leite vs. leike

2) liteke vs. leike

3) leike

MENDIBURU

- EDUN eta ERADUN (NNN) erabiltzen, *dute* bezalako adizkietan, *te* pluralgilearekin. (≠ *due, dabe*)

- <h>-aren erabilera grafikoa (erdaratik datozen maileguetatik (*hordu*) ≠ erabilera fonetikoa (Etxahun)

- *Bizitu* partizipio pleonastikoak

- Tz>z : *bihoz*

- *Edun adizkien bokalismoa NN paradigmaman : *dezu/dut* (nahiko sistematikoa)

- Indikatiboaz kanpoko NN eta NNN lag. **ezan* dugu.

- KO eta REN : *bukatuko* eta *emain*

- *Gogo-asmo, estali-gordeak...* (2 hitz sinonimo erabiltzen gauza bera errateko > sinonimo elkarketa/pilaketa)

MOGEL / AÑIBARRO

- *Soziatiboa* : sing. -agaz / pl. -akaz / -(e)gaz

- **Linchmann-Aresti** legea > « *zure eguna da / zeure laguna duzu* ». Aditzean 2.perts ez bada > neutroa (zure) baina 2. perts agertzen bada > indartua (zeure). [Arau hau jadanik galzorian testu hauetan]. Orduan posible da agertzea « *Zeure eguna da* » = lege haustura.

- *Ja* NNori paradigmaman : *jako* 'zaio', *jatzuz* 'zaizkizu'

- **Aditz laguntzaileak** : izan, *edin // *edun, e(d)utsi, egin + *joan* eta *eroan* ohikotasuna adierazteko : *ekarri darozu* (= ekarri ohi duzu) / *etorri doa*.

- Desberdintasunak :

1- Bokal bikoitzak : + Mogel / - Añibarro: jaan-jan, zaar-zar, sur-suur.

alaba+an : alabaan (Mogel) -alaban (Añibarro)

2- Bokalismoak / bokal eufonikoak :

-Mg. alab**ia**, etx**ia**, mend**ija**, ots**ua**, bur**uba**

-Añ. alab**ea**, etx**ea**, mend**ia**, ot**soa**, bur**ua**

ETXAHUN

- /h/ fonema, th-ph-kh (ikhusi)

- /y/ bokala <ü> : testu zaharretan <u> /y/ <ou> /u/

- <ch> = <x> eta <tch> = <tx>

- i-u > ü-ü : ditut > dütüt

- gaiaz > gauaz : au>ai

- NNN 'erau' *erei* zub.: dereitzüt/deitzüt

ETXEPARE

- /h/ fonema

- NNN erroa **Eradun* : 'dautzut' bainan **edun* DAT 3.perts : diot.

Ip ezaugarriak :

- TOGen: '*lagunaren ikusterat*'

- Ad nag. eta ad. Lag. Kokapena [galdegaia markatzeko]

- Frantses maileguak : '*metr-etan*'

Nor-Nork saileko laguntzaileen eraketa azaltzeko prozedura, bizkaierazko testu baten aurrean

Ohar orokorra: hau prozeduraren azalpen OROKORRA, puntuka atalkatua. Testu jakin batek ez badu puntu konkretu bat(zu)e(ta)ko agerpenik, puntu hori(ek) ez d(ir)a iruzkindu beharko. Izan ere, zerrendaketa egin daiteke puntu fisikoen bidez (1/ ..., 2/ ... 3/ ..., etab., agerpenik ez dutenak hutsik utzita), edo gidoika (→ ..., → ..., → ..., → ..., etab., agerpenik ez dutenak saltatuz).

Bestalde, hemen bakarrik bizkaierazko testu baterako azalpena ematen da konplikazio gehien ager ditzakeen euskalkia baita. Gainerako euskalkietako testuetarako, prozedura berbera har daiteke abiapuntu, baina puntu batzuk / askok ez dute garapenik izango.

1/ LA-ko forma gehienetan, hasierako hutsunea 1. edo 2. pertsonakoa ez denean, gainerako euskalkietan z- topatzen dugun bitartean, bizkaieraz Ø- dugu: (... testuko kasuak zerrendatu...).

2/ Erroa(ren forma)

2.1/ Indikatiboko eta baldintzazko formetan, bizkaierazko adizkien erroak forma berezia du:

- OA-ko adizki batzuk -o- bokalismoa dute (vs. gip. -e-, ek. -u-): (... testuko kasuak zerrendatu...).

- OA-ko 3. p.ko forma -au- bokalismoa agertzen du (vs. gainerak. -u-): (... testuko kasuak zerrendatu...).

- OA-ko eta LA-ko adizki batzuk -b- (< -w- < -u-) bat agertzen dute (adib. *dab-ela* 'du-e-la', *dabe(e)* 'dute', *neban*, *eban*, etab.): (... testuko kasuak zerrendatu...).

- Baldintzazko adizki batzuk -eu- diptongoa mantentzen dute (vs. gainerak. -u-; adib. *neuke*, *baneu*...): (... testuko kasuak zerrendatu...).

2.2/ Ahalera, subjuntibo eta aginterako formetan, bizkaierazko adizkiek -gi(n)- erroa dute (vs. gainerak. -za(n)-; adib. *daiket* (< *da-gi-ke-t*), *zagizan* 'zaitzadan', *gagizuz* 'gaitzazu', etab.): (... testuko kasuak zerrendatu...).

3/ Erroaren ondorengo pertsona-markak

3.1/ Nork-eko pluralgilea, bizkaieraz -e da (vs. erdialdean -te, ekialde muturrean -e): (... testuko kasuak zerrendatu...).

3.2/ Nor-eko pluralgilea, bizkaieraz -z izan ohi da (eta amaieran; adib. *doda-z*, *dogu-z*, etab. baina ikus *ditu(z)*, etab.): (... testuko kasuak zerrendatu...).

Nor-Nori-Nork saileko laguntzaileen eraketa azaltzeko prozedura

Ohar orokorra: hau prozeduraren azalpen OROKORRA, puntuka atalkatua. Testu jakin batek ez badu puntu konkretu bat(zu)e(ta)ko agerpenik, puntu hori(ek) ez d(ir)a iruzkindu beharko. Izan ere, zerrendaketa egin daiteke puntu fisikoen bidez (1/ ..., 2/ ... 3/ ..., etab., agerpenik ez dutenak hutsik utzita), edo gidoika (\rightarrow ..., \rightarrow ..., \rightarrow ..., \rightarrow ..., etab., agerpenik ez dutenak saltatuz).

1/ LA-ko forma gehienetan, hasierako hutsunea 1. edo 2. pertsonakoa ez denean, gainerako euskalkietan *z-* topatzen dugun bitartean, bizkaieraz \emptyset - dugu: (... testuko kasuak zerrendatu...).

2/ Erroa

2.1/ Indikatiboko eta baldintzazko formetan, erro ezberdina dugu euskalkiaren arabera (bizk. arab. *-eu(t)s-*, gip. goi-naf. *-i-*, naf.-lap. *-au-* \sim *-i-*, ek.-mut. *-e(re)i-*): (... testuko kasuren bat jarri...).

2.2/ Ahalera, subjuntibo eta aginterako formetan, bizkaierazko adizkiek *-gi(n)-* erroa dute, gainerakoek *-za(n)-* (adib. *degiodan* ‘diezaiodan’, *egidazu* ‘iezadazu’, etab.): (... testuko kasuak zerrendatu...).

3/ Erroaren ondorengo pertsona-markak

3.1/ Nork-eko pluralgilea, bizkaieraz *-e* da, erdialdean *-te*, ekialde muturrean *-e*: (... testuko kasuak zerrendatu...).

3.2/ Nor-eko pluralgilea, bizkaieraz *-z* izan ohi da (eta amaieran; adib. *deutsa-z* ‘dizkiot’, *eusku-z-a-n* ‘zizkigun’, etab.): (... testuko kasuak zerrendatu...).